- ~ Aurrekontuen aldaketa. Bilkurari aurkeztutako Ekonomia eta Finantza Batzordearen Akordio-proposamena.
- ~ UPV/EHUak BCBL Fundazioan parte hartzea. Ekonomia eta Finantza Batzordearen Akordio-proposamena.
- ~ Unibertsitateko Hezkuntza Publikoko Koordinazioko Kontseilurako Gizarte Kontseiluaren ordezkaria izendatzea.
- ~ UPV/EHUrenak diren Baliabide Fisikoen eta Higiezinaren inbentarioa. Aurkezpena.

138.a Osoko Bilkura (2009ko uztailaren 15ean)

- ~ Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Ikerketa Sailak eta Hezkuntzako Ministerioak ateratako 2009-2010 ikasturterako Elkarlanerako Diru-laguntzak. Haien banaketa departamentuetan. Batzorde Akademikoak eta Euskarakoak Osoko Bilkurari aurkeztu dion proposamena.
- ~ UPV/EHU Nazioarteko Bikaintasun Campus hautagaitzara barneratzea Batzorde Akademikoak eta Euskarakoak Osoko Bilkurari aurkeztu dion proposamena.

- ~ Aldaketak aurrekontuetan. Ekonomia eta Finantza. Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu dion akordioaren proposamena
- ~ Ikasketa Osagarriak. Konbalidazioak. Ekonomia eta Finantza. Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu dion akordioaren proposamena.
- ~ 2009-2010 ikasturteko berariazko tituluak. Prezioak. Ekonomia eta Finantza. Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu dion akordioaren proposamena.
- ~ UPV/EHUak Bizkaiko Parke Teknologikoan parte hartzea. Ekonomia eta Finantza. Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu dion akordioaren proposamena.
- ~ UPV/EHU 2007-2010 Gizarte Kontseiluaren Plan Estrategikoa. 2010 Taktikak. Plan Eragilearen. batzordeak (Plan estrategikoa) Osoko Bilkurari aurkeztu dion Akordio Proposamena.
- ~ Lan-barneratzeari buruzko inkesta. 2005eko promozioa.

139.a Osoko Bilkura (2009ko urriaren 7an)

- ~ Garapena eta Munduko Ekonomiari buruzko Ikasketen Atxikitako Unibertsitate Institutua (HEGOA) Institutu Misto bihurtzea Irakaskuntza eta Euskara Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu dion erabaki proposamena.
- ~ Graduak Irakaskuntza Ofizialak. Irakaskuntza eta Euskara Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu dion erabaki proposamena.
- ~ Aurregraduak Berezko Titulua Giza-Zientziak. Esperientziaren gelak. Prezioak Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu dion erabaki proposamena.
- ~ Aurrekontuen aldaketa Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu dion erabaki proposamena.
- ~ Dohaintza onartzea. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu dion erabaki proposamena.
- ~ PDIarekiko ordainsari osagarrien esleipena Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu dion erabaki proposamena.
- ~ PDIarekiko ordainsari-osagarriak. Baliabideak. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu dion erabaki proposamena.
- ~ PDIarekiko ordainsari-osagarriak. Berresleipenak. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu dion erabaki proposamena.
- ~ Gizarte Kontseiluaren finantza-informazioaren egoerak, 2009ko ekainaren 30a.

- ~ 2007-2010 Plangintza Estrategikoa. Plangintza Operatiboa 2009. Lankidetzaren unibertsitatearen kontuak gizarteari jakinaraztean Plan Operatibo Batzordeak (Plan Estrategikoa) Osoko Bilkurari auzkezten dion erabaki proposamena.
- ~ 2007/2010 Plangintza Estrategikoa. Plangintza Operatiboa 2009. Unibertsitate-ereduen identifikazioa. Plan Operatibo Batzordeak (Plan Estrategikoa) Osoko Bilkurari auzkezten dion erabaki proposamena.

140.a Osoko Bilkura (2009ko azaroaren 18an)

- ~ Graduko irakaskuntza ofizialak. Akademia eta Euskara, eta Ekonomia eta Finantza Batzordeen Akordio-Proposamena.
- ~ Aurrekontu-aldaketak. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Bilkurari luzatutako proposamena.
- ~ Gizarte Kontseiluaren finantza-informazioa, 2009ko irailaren 30ean.
- ~ Ikasketa Osagarriak. Baliozkotzeak. Ekonomia eta Finantza Batzordeak bilkurari luzatutako Akordio-Proposamena.
- ~ Unibertsitateko Ikasketa-Osagarriak. Prezioak. «CAD/CAE Ingeniaritzako goi-mailako ikastaro. Kalkulu eta Simulazio numerikoa elementu finitu bidez». Ekonomia eta Finantza Batzordeak Bilkurari luzatutako Akordio-Proposamena.
- ~ UPV/EHUren partaidetza Espainiako Industria-Segurtasuneko Plataforma Teknologikoan (PESI). Ekonomia eta Finantza Batzordeak Bilkurari luzatutako Akordio-Proposamena.
- ~ Txosten ekonomikoa UPV/EHU 2008. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Bilkurari luzatutako Akordio-Proposamena.
- ~ PDLarekiko ordainsari osagarrien esleipena. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari aurkezten dion erabaki proposamena.
- ~ Deialdia (III) merituen ebaluazioa eta irakaskuntza eta ikerkuntzako pertsonalaren ordainsari osagarrien esleipena eskatzeko. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Bilkurari luzatutako Akordio-Proposamena.
- ~ Ideia-lehiaketa webean eskainitako zerbitzuen erabilera laguntzeko. Sari-banaketa.


141.a Osoko Bilkura (2009ko abenduaren 16an)

- ~ Aurrekontu-aldaketak. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari aurkezten dion erabaki proposamena.
- ~ PDIarekiko ordainsari-osagarriak. Berresleipenak. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari aurkezten dion erabaki proposamena.
- ~ PDIarekiko ordainsari osagarrien esleipena. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari aurkezten dion erabaki proposamena.
- ~ Osoko Bilkuren 2010eko egutegia.





JARDUERA NAGUSIAK



PLAN ESTRATEGIKOAREN ESPARRUAN EGINDAKO TXOSTEN ETA AZTERKETAK

43


Txostenak eta ikerketak

Gizarte Kontseiluak, 2007-2010 Plan Estrategikoaren esparruan, hainbat txosten egin ditu EHUren irudia sendotzeko, irakaskuntza-erakundea gizarteari hurbiltzeko eta unibertsitatearen kudeaketa hobetzen laguntzeko asmoarekin.

Kontseiluaren jarduera guztia bildu dugu Memoria honetan, hamabost bat txosten eta ikerketatan islatua. Errazago erabili ahal izateko, indarrean dagoen Plan Estrategikoak lau urteko horrentzat bere garaian definitu zituen lau ardatzen arabera multzokatu ditugu: unibertsitatea kudeatzen lagundu, Unibertsitatean gizartearen ahotsa izan, Kontseilua EHUra hurbildu eta Unibertsitatearen eta gizartearen arteko komunikazioa hobetu. Horren guztiaren emaitza, txostenen ondorengo lau blokeak dira:

- ~ EHUren ikusgarritasuna
- ~ Unibertsitateko enplegua
- ~ Gizartearen ahotsa
- ~ Unibertsitatea kudeatzen laguntzea

EHU-ren ikuspena



2007-2010 Plan Estrategikoan definitzen diren ekintza-ardatzetako bat da. Horren helburua gizarteak Unibertsitatearen baliabideak erabil ditzan erraztea da, orobat Unibertsitatearen baloreak eta irudia sustatzea eta gizarteak erabil ditzakeen produktu eta zerbitzuak erakustea.

Ikerketa produktuen eta zerbitzuen katalogoa

Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak egin du EHUren ikerketa produktuen eta zerbitzuen katalogoa 2007-2010ko Plan Estrategikoaren esparruan, kanpoko eskatzailea Unibertsitateak gizarteari eta enpresei eskaintzen dituen edo eskaintzeko gaitasuna duen produktu eta zerbitzu guztietan sartu ahal izateko.

Katalogoa, Unibertsitatearen eskaintzen gida praktiko gisa konfiguratuta dagoena, lau arlotan bana daiteke, zeinetan Enpresei eta Ikerketa Taldeei eskaintzen zaizkien Zerbitzuetara sartzeko beharrezkoa den informazioa biltzen den. Adituak diren gaietan hainbat espezialistek gizarteari eskaintzen dizkiete haien jakintzak eta gure Unibertsitatean burutu diren doktoretza tesien zerrenda luzea ere biltzen da bertan.

UPV/EHU-ren Jardueren Urtekari Estatistikoa

Unibertsitatearen Jardueren Urtekari Estatistikoaren helburua unibertsitate-jarduerari dagokien informazio estatistikoa biltzea eta baloratzea da, informazio hori eskuratzea errazten duen aurkezpenarekin. Urtekari honetan Unibertsitatearen jarduerako datu esanguratsuenak jasotzen dira, formatu berritzaile erabilgarri eta praktikoagoan, unibertsitekoa ez den erabiltzailearen ikuspuntutik.

2008an argitaratu zen lehen aldiz, 2005-2006 ikasturteari zegokion informazio estatistikoarekin eta 2009an eguneratu egin da, eskura zeuden azken datuekin. Bilduma bederatzi kapitulutan egituratuta dago:

- ~ Lehenean, "EHU begirada batean" kapituluan, datu nagusiak, ratio konparatiboak eta gehien egiten diren galderak eskaintzen dira.
- ~ Bigarren eta zortzigarren kapituluen bitartean, honako hauei buruzko bilduma sakona aurkezten da:

- Titulazio-eskaintza (graduakoak, gradu ostekoak, etengabeko prestakuntza, bekak, campus birtuala)
- Ikasleak (graduakoak, gradu ostekoak, emakumeen presentzia, euskarazko eskaera)
- Giza baliabideak (irakasle eta ikertzaileak, AZP)
- Ikerketa-jarduera eta enpresentzako zerbitzuak
- Baliabide materialak (azpiegiturak, ostatu ematea, liburutegi-zerbitzua, argitaletxea, kirola, garrarioak, ikasleei laguntzeko zerbitzua, laneratzea...)
- Kanpo-proiektzioa (mugikortasuna, garapenerako lankidetzak, hizkuntza-aniztasuneko plana)
- Gizartearekiko engaiamendua (gizon-emakumeen arteko berdintasuna, ezinduen arreta, ingurumen-ardura eta jarduera kultural eta borondatezkoak)

EHU-k gizarteari kontu emateko adierazleak

Gizarte Kontseiluaren bitartez gizarteari kontu ematea legezko betekizuna da EHUrentzat, baina baita eginkizun filosofiko eta etikoa ere. Lan hori sinplifikatzeko, Kontseiluak Unibertsitate-zerbitzuen adierazle-sistema bat diseinatzea erabaki zuen. Horrekin, hogeni adierazle gakoren bitartez, posible da Unibertsitatearen helburu sozialen betetze-maila neurtzea eta unibertsitate-zerbitzuen jarduera ebaluatzea, bide batez, antzeko ezau-garriak dituzten beste unibertsitate batzuetakoarekin konparatuz.

Azterketa honen helburua, zeinaren emaitzak web gune honetan aurkezten baititugu, gizarteari EHUren emaitzei, ekarritako balioari eta helburuen betetze-mailari buruzko informazio ebaluagarria eskaintzea da, dagoen informazio ugaria laburbilduz eta antolatuz. Ematen den informazioak gizartearen oinarritzko galdera edo kezkek argitzen ditu, kontu emateko oinarritzko adierazleak eskaintzen ditu eta EHUk bere Plan Estrategikoan berariaz adierazitako helburuetara doitzen da.

Emaitza EHUren egiazko irudia da, zortzi arlo gaketan kontu emateko orduan: ingurunean, irudi instituzionalean, estalduran, prestakuntzan, ingurunearekiko egokitzapenean, ikerketan, hizkuntza-normalizazioan eta gizarte-arduran.

Gizarte kontseiluak UPV/EHU-aren gizarte sarea sortzeko ideien lehiaketaren sariak eman zituen

UPV/EHU-ren Gizarte Kontseiluak ikasleei, graduatuei eta Unibertsitateari atxikitako langileei zuzendutako Gizarte Sarea sortzeko Ideien Lehiaketaren sariak eman zituen iragan otsailaren 28an. Sari-rien helburuak aipaturiko taldeen arteko komunikazioa sustatzea, haien gaitasunak hobetzea, lanean hasteko pausoan zuzentzea, etengabeko hezkuntza sustatzea eta ezagutzaren arloen profesionalen arteko komunikazioa hobetzea dira.

12.000 euroko, 6.000 euroko eta 3.000 euroko sari bana eta 1.000 euroko hiru akzesita zituen ideien lehiaketa horretara 19 talde aurkeztu diren, gizarte sareko 14 proiektu aurkeztu zituztenak.

Lehenengo saria «PLE bitartez (Personal Learning Environments) bitartezko Gizarte Sareen sortzea eta garapena» proiektuak eraman zuen. Taldearen partaideak: UPV/EHU-ko irakasleak diren Javier Portillo (Ingeniaritza), Manuel Benito (Gizarte Zientziak) eta Jesús Romo (Ingeniaritza); Ingeniaritzako Oskar Casquero eta Beatriz Tejedor ikasleak eta Kazetaritzan graduatutako Ramón Ovelar.

Proposamena, PLE-etan oinarritutakoa, unibertsitateko edozeinek erabiltzen dituen aplikazioek (hasierako orria, kontaktuen kudeaketa, e-maila, blogak, wikiak, testu editoreak, web pertsonala, etab,) gutxieneko egitura komuna edukitzea da, Unibertsitatearen zerbitzarietara informazioa esportatzeko eta haietatik informazioa inportatzeko gai izan daitekeelarik, taldeko kide guztien gizarte sare denak modu zentralizatu eta pertsonalizatuan sortu eta kudeatu ahal izateko.

Bigarren saria, 6.000 eurokoa, «UPV/EHU-ko Gizarte Sarea» proiektuak eraman zuen. Partaideak: Santiago de Pablo Katedraduna eta Bárbara Echeverría eta Fidel Liberal irakasleak; Nagore García eta Jon Ortiz lizentziatuak eta Marta Rosete Maisutza ikaslea.

Proiektuaren helburua hainbat edukiko bloga sortzea zen, ez pertsonala, baizik eta instituzionala, irakasleek modu boluntarioan ekarritakoarekin, eta gaietan zein ataletan sailkatutakoak, Gizarte Sareko kideei modu pertsonalizatuan bidaliko zitzaiena buletin elektronikoko gisa. Unibertsitateko graduatuak antzinako irakasleekin harremanetan jarraitu ahal izatea da haren helburua, horrela, unibertsitatearen komunitate handi horretan jarraitu ahal izango dute (birtualean, kasu honetan).

Hirugarren saria Josu Aramberri, José Miguel Correak, Margarita Leónek, José Manuel Pérezek, Estibaliz Jiménez de Aberasturik eta Luis Pedro Gutiérrezek aurkeztutako proiektuak eraman zuen. Proposatu zutena, doako softwaren erremintetan oinarritutako sarea sortzea da, Mahara (etengabeko hezkuntzan zentratutako gizarte sarea edukitzeko egun dagoen sistema aurreratua omen dena) eta Moodle esaterako (hautematen diren hezkuntza beharren erantzun konplexu eta artikulatuari erantzuna emateko ikastaroen kudeatzaile gisa), modulu bakar gisa edo elkarrekin komunikaturiko hainbat modulu gisa funtzionatuko luketenak. Sareak besteekin elkartzeko ahalmena izango zuen espazio malgu gisa egituratuko litzateke eta UPV/EHU-aren berariazko erreminten erabilerarekin osa zezakeen. Bertaratutako heziketaren lagungarri izango litzateke eta haren lagungarri birtuala, etengabeko heziketarekin, enprekin, etab. lotura estuagoak dituzten espazioak ireki ere zitzakeelarik.


Nahi duenak, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluaren web orrian irakur ditzake hiru proiektu irabazleak eta akzesita irabazi duten beste hirurak ere: <http://gizartekontseilua.com/>, «Novedades: Proyectos ganadores del Concurso de Ideas para la creación de una red social» atalean.

Unibertsitate-enplegua

Atal honetan zenbait azterketa eta inkesta jasotzen dira unibertsitate-tituludunen laneratzeari loturik; izan ere, EHUko zazpi promoziori inkesta egin zaie. Horrez gainera, Lehen Enpleguko Behatokia eta tituludunen lan-orientaziorako gida praktikoa bat jasotzen dira.

Lehen Unibertsitate Enpleguaren Behatokia

Lehendabiziko lana, «Lehen Unibertsitate Enpleguaren Behatokia» hiru helburu dituen ikasketa da: ikasle egresatuaren lehen enplegurako sarbidearen joerak hauteman, lortutako kualifikazioarekin lotuz; lan-merkatuaren eskariak eta profil profesionalekiko eta eskatutako gaitasunekiko egokitasuna aztertu, eta tituludunei lanean txertatzeko orientabideak eskaini.



Ikasketak hainbat adituren iritzia hartu du kontuan eta 4.400tik gora lan-eskaintza aztertu dit, pribatu zein publikoak, eta krisia dela eta esperientziarik gabeko unibertsitate-tituludunentzako lan-eskaintzak behera egin duela ondorioztatu du; hortaz, 2011 urtera arte itxaron behar da lana berriro ere aurreko urteetako maila bertsuetan sor dadin.

Artean, ekitaldi honetan, hauexek izango dira jarduera-alorrik dinamikoak: enpresen administrazio, kudeaketa eta finantzak; komertziala; prestakuntza eta osasuna; ingeniariak eta produkzioa, eta informatika; sektorerik dinamikoak, aldiz, hauek: bioteknologiak, nanoteknologiak, ordezko energiak, garraio adimentsurako elektronika, eko-berrikuntza, eraikuntza jasangarria, IKTak, mugikortasun eta garraio-sistema aurreratuak, osasuna eta medikuntza, pertsona adindunentzako elektronika eta bizi-kalitate teknologiak.

Profilak dagokienez, azterketaren emaitzek enpresen exijentzia-maila geroz eta handiagoa da; beraz, titulazioa abiapuntua da eta ez helmuga, eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza ezinbesteko bilakatzen da, eta profesionalen aldetik jarrera proaktiboa eskatzen du. Hori dela eta,

unibertsitate-titulazioarekiko gaitasun osagarriak garatzea funtsezkoa da enplegu-eskatzailerik gaztearentzako, sei alorretan bereziki: atzerriko hizkuntza baten ezagutza (ingeleza, ahal dela); ahozko eta idatzizko komu-

nikazio-trebetasunak; gaitasun digitala; atzerrian ikasi edo praktikak egitea; kudeaketa, talde lan, lidergo eta bezeroarekiko orientazio-gaitasuna; eta inizatiba, sena ekintzailea eta sektore profesionalaren aldaketetara egokitzeko gaitasuna.

Azkenik, ikasketak jarduera ekonomikoko sektore nagusienetako gaitasun tekniko sorta bat ere identifika-tzen du; unibertsitate-ikasleentzako orientabide izateko helburua du, lan-munduan hobeto kokatzeko aldera eta Unibertsitateari merkatuaren joeretara egokitzeko eta orientazio-sistemei epe labur eta ertainerako joerei buruzko materiala izan dezaten informazioa emateko.

Laneratzeari buruzko inkesta

Unibertsitate Tituludunen Laneratzeari buruzko Inkesta behatoki iraunkorra da, kolektibo horren lan-okupazioko tasak eta garatzen dituzten lanen kalitatea eta egokitasuna ezagutzea ahalbidetzen duena. Inkesta sortzea 1999ko uztailan adostu zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak eta Plan Estrategikoan barne hartzen diren ekintzen zati da.

Inkesta, zeinak zazpi unibertsitate-promozio aztertu baititu jadanik, hitzarmen bidez gauzatzen da. Hitzarmen hori urtero adosten dute Euskal Herriko Unibertsitateak, horren Gizarte Kontseiluak eta Egailan sozietate pu-blikoak. Inkestaren emaitzak oso tresna baliotsua dira gure Autonomia Erkidegoko goi-irakaskuntzari eragiten dioten erabakiak hartzeko orduan. Inkesta horien emaitza osoak eta analizatutako zazpi promozioei dagozkien txostenak hemen kontsulta daitezke: <http://gizartekontseilua.com/category/insercion-laboral/>

Unibertsitatea tituludunentzako lan orientazio gida

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak bere Web gunera dakar, unibertsitate tituludunentzako lan orientazio gida, Tres-na bat gehiago da –web guneak honezkero baditu tituludunen lan-txertatzeari edo enpresek eskatzen dituzten gaitasunei buruzko beste informazio-atal batzuk–; honek, beste gauza askoren artean, curriculum erakargarri bat egiteko gomendioetatik hasi eta Euskadiko unibertsitate-enpleguaren merkatuari buruzko ikuspegi zabala eta osoa ere jasotzen ditu, baita auto-ebaluazio bat egiteko moduari buruzko orientabideak edo bilaketa ordenatu eta programatuari nola aurre egin azaltzen duten aholkuak ere.

Lana aurkitzea UPV/EHUko tituludunen lehen helburua izaten da eta Gizarte Kontseiluak lan hori erraztu nahi die Gida praktiko honen bitartez; gainera, enplegua eskaintzen duten ehunka eragileren web guneetarako esteka zuzenak ere eskaintzen ditu, enpresak, erakundeak, elkargo profesionalak edo enplegu-atariak direla, bakar batzuk aipatzearren.

Gizartearen ahotsa


Plan Estrategikoan definitutako beste jarduera-ildo bat da. Horretan, gizartearen beharrak identifikatzeko helburua duten azterketak biltzen dira, lehiakortasunari, berrikuntzari, ikerketari, trebeziei eta beharrezko ezagutzei buruz, orobat bikaintasuna sustatu nahi da, orokorrean, baita Unibertsitatearen zerbitzu eta produktuak bereiztea ere.

EHUko ikasleen berrikuntzako eta ekiteko gaitasuna garatzeko plana taxutzeko ikerketa-proiektua

Gizarte Kontseiluak EHUko ikasleen berrikuntzarako eta ekiteko gaitasuna garatu nahi du eta, horretarako, epe labur eta ertaineko 10 jardunbide barne hartzen dituen proiektu hau onartu du, zeinak unibertsitateko tituludunek aipatu gaitasunak lortzea erraztu behar baitute.

Proiektuak EHUko berrikuntza sustatu nahi du, orobat ekite-esparruan gaitasunak garatzen eta eskuratzen aurrera egin, ikasketa-programak gure gizartearen behar aldakorretara moldatu, tituludunen prestakuntza hobetu, lan-munduan integra daitezen, eta unibertsitatea Europako hezkuntza-esparru berrira egokitzen lagundu. Proiektua taxutzen berrikuntza eta ikaskuntzako 33 adituk parte hartu dute eta Ipar Amerikako sei unibertsitaterekin eta Europako zortzi unibertsitaterekin esperimentuak kontuan hartu dira (benchmarking). Halaber, Danimarkako hezkuntza-sisteman aplikatzen den eredua sakontasunean aztertu da.

Proiektu honek urrats bat gehiago ematen du unibertsitate-ikasle tituludunek izan beharreko gaitasunei buruz gizarteak egiten dituen eskakizunak aztertzeke Gizarte Kontseiluaren ahaleginean. Ahalegin hori 2007an hasi zen, Psikologia, Kimika, Industria Ingeniaritza eta Filologia gradu-titulazioetako gaitasun-azterketarekin. Euskal Administrazio Publikoen prestakuntzako, ikerketako eta zerbitzuetako beharren azterketa EHUri dagokionez.



Nazioarteko unibertsitateen benchmarkinga, ikaskuntza iraunkorraren arloan

Gizarte Kontseiluaren 2008ko Ekintza Planean «Euskal Administrazio Publikoen EHUri loturiko prestakuntzako, ikerketako eta zerbitzuetako beharrei buruzko azterketa» egitea barne hartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio guztien oraingo eta etorkizuneko eskakizunak analizatzeko aipatu esparruetan. Horretarako, bestelako analisi-material batzuk izateaz gainera, azterketan Administrazioko 62 arduradun (Eusko Jaurilaritza, Foru Aldundiak eta bestelako organismoak) eta Unibertsitateko 45 sail-zuzendari edo ikerketa-taldeetako zuzendari inkestatu ziren.

Azterketak agerian utzi zuen elkarren ezagutza hobetzea komeni dela, lankidetzaren etorkizunari orientazio estrategikoarekin aurre egin behar zaiola, goi-mailako elkarriketakideak sortu behar direla, baterako ikerke-ta-proiektuak sustatu behar direla eta filtro burokratikoak murriztu behar direla.

Halaber, azterketak zenbait lankidetzaz-esparru identifikatu ditu prestakuntza- eta ikerketa-jardueretan, orobat Administrazioei puntako ikerketa-lan eta azterketak eskuratzea erraztuko lieketen zenbait zerbitzu, EHUri kontraste handiagoa eta unibertsitatean garatutako ezagutzen aplikazio praktikoa bermatuko lieketenak.

Hezkuntza iraunkorreko 17.02.10 Nazioarteko Unibertsitateen Hezkuntza iraunkorreko Benchmarkinga


Hezkuntza iraunkorra erronka eta aukera berria bilakatu da munduko unibertsitate guztientzat. Erronka, gizar-teak eta sistema ekoizleak ekonomia mugitzen duten profesionalen birziklatzeko beharra gero eta handiagoa dela eta, konponbidea bilatzen dutelako eta, aukera, aldiz, hezkuntza iraunkorra unibertsitateko zerbitzuen jardueraren estandarrak onak izaten jarraitzeko modua delako.

Gizarte Kontseiluak EHUK erronka eta aukera horiei baldintzarik onenetan aurre egitea nahi du eta, horretarako, ondorengo ikerketa burutu du. Hauek dira ikerketa honen helburuak: erreferentziako unibertsitateak identifikatzea, gai horren inguruko praktika onenak aukeratzea, Kontseiluan eztabaida sortzea eta gure unibertsitatean ikasketa iraunkorra indartzeko kontuan hartuko diren nazioarteko erreferentziarako elementuak aztertzea.

Unibertsitate-kudeaketarako ekarpena

Baliabideak identifikatu, unibertsitatearen eta gizarte-ingurunearen arteko kontaktuak erraztu (hala nola Gizarte Kontseiluaren eta gizartearen artean) eta gizarte-testuingurua definitu (gaur egungo eta etorkizuneko aukerekin) nahi dituzten lan eta azterketak dira.

EHU-ko campusetako gobernurako eta kudeaketarako egitura eta funtzioak unitate autonomo oso gisa ezartzea



2009ko Ekintza Planaren esparruan, Kontseiluak «EHU-ko campusetako Gobernurako eta Kudeaketarako egitura eta funtzioak unitate autonomo oso gisa ezartzea» azterketa gauzatu du; horren helburua, egungo egoera analizatzea, diagnostiko bat egitea eta campus anitzeko antolakuntza-eredu berria proposatzea da. Hemen aurkezten dugun lanerako, kontuan hartu dira antolakuntza-adituen eta errealitate antzekoak dituzten mundu guztiko zenbait unibertsitateko esperientzien ekarpenak.

Azterketak campus anitzeko antolakuntza-eredu berria proposatzen da eta transformazio-estrategia gomendatzen du, gainera, tresnak (prozedurak eta baliabideak), antolaketa eta ezarpen-egutegia iradokiz.

Halaber, txostenak agerian uzten du EHUK gaur egun arte campus anitzeko erakunde gisa egin duen ibilbidea, laster Gobernu Kontseiluak onartutako oinarri-dokumentuarekin bat egingo denarekin batera, oso esanguratsua dela aztertu diren campus anitzeko unibertsitate-erakundeen artean.

Web orrian eskaintzen diren zerbitzuen erabilera bultzatzeko ideien lehiaketa

2007-2010 Gizarte kontseiluaren Plan Estrategikoaren eta 2009rako aurreikusitako Plan Eragilearen arabera, EHUKo webgunean eskaintzen diren zerbitzuak erabiltzea bultzatzeko IDEIEN LEHIAKETA onartzea.

Juanan Pereirak, Beñat Gurmendi eta Mikel Niñok, EHUKo irakaslea eta ikasle ohiak, hurrenez hurren, osatutako taldearen ideiak jaso zuen saria, Unibertsitatearen webgunearen erabilera hiru modutan bultzatzeko proiektuan oinarritzen zena:

- ~ Erabiltzailearekin hartu emana unean burutzeko mezularitzako robotak.
- ~ Webguneko zerbitzuen kalitateari buruz botoa emateko sistemak martxan jartzea.
- ~ EHuko gizarte sarea indartzeko gizarte sareak erabiltzea.

Beste txosten batzuk

Berezko titulazioen azterketa



Txosten hori 2006an egin zen eta 2008an eguneratu zen. Txostenaren helburua interes-arloak identifikatzea eta gizartearen behar eta eskakizun berriei hobeto erantzuten dieten berezko titulazio berriak ezartzeko gomendioak egitea da. Azterketak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurune sozioekonomikoaren deskribapen xehakatur egiten du, eskaintza eta eskaera analizatzen ditu eta EAEko unibertsitate-esparruko, esparru sozialeko eta esparru ekonomikoko hizketakideekin identifikatutako eta kontrastatutako prestakuntza-behar berriei buruzko analisi zehatza egiten du. Halaber, kontuan hartzen ditu garapen ekonomiko, industrial eta I+G-ko planak.

Bai hasierako txostena eta bai 2008ko eguneratzea hemen kontsulta daitezke: <http://gizartekontseilua.com/category/publicaciones-e-informes/informes-publicaciones-e-informes/>

TOPALEKUA. INFORMAZIO-BULETINA

35 zk. 2006ko otsaila



- ~ Fiskalizazio-Txostena aurkeztu du Unibertsitateko GizarteKontseiluaren Osoko Bilkuran.
- ~ Gizarte Kontseiluak Euskal Herriko Unibertsitatearen Lehenengo Graduon-
do Ofizialak onartu ditu.
- ~ Europako Esparrura egokituta dagoen titulu-maparen proposamena.

53

36 zk. 2006ko uztaila



- ~ %85,5 arte igo da EHuko tituludunen enplegu-tasa.
- ~ Gizarte-kontseiluak EHuko 2006ko aurrekontua, 342,6 milio Europakoa, onetsi du.
- ~ Malgutasuna, eksklusibotasuna eta hazkundera, EHUn berezko tituluak gar-
ratzeko ardatzak.



37 zk. noviembre 2006

- ~ José Miguel Martínez Urquijo, EHuko Gizarte Kontseilu presidente berria.
- ~ Gizarte Kontseiluak EHuko 2006-2010 denboraldiko azpiegiturretan egin beharreko inbertsioen urte anitzeko plana onetsi du.
- ~ Kontseiluak plan estrategikoa berrikusiko du.
- ~ Unibertsitateko irakaskuntzen antolakuntza berriari buruzko egitasmoaren ibilbidea hasi da.



38 zk. 2007ko otsaila

- ~ Gizarte Kontseiluaren 2007-2010 plan estrategikoak UPV/EHuren irudia indartu nahi du eta unibertsitatea gizartera gerturatu.
- ~ Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartu du ordainsari-osogarrietarako deialdia.
- ~ Kontseiluko Osoko Bilkurak onartu ditu UPV/EHuren 2005eko kontuak.



39 zk. 2007ko martxoa

- ~ Gizarte Kontseiluak 270.000 euro bideratu ditu unibertsitateko enplegu eskaintzen behatokira, ikerketa zerbitzuaren katalogora eta EKU-ko jardueren urtekarira.
- ~ EHU-ko 2002ko promozioako gradu-ondoko ikasleen %91,8 lanean ari dira eta %88,3 ikasketekin bat datorren lanpostuan ari dira

55



40 zk. 2007ko ekaina

- ~ Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkurak 2007rako aurrekontua onesten du.
- ~ Kongresuak LOUren erreorma onestu du.
- ~ Unibertsitateen Euskal Kontseiluak eta Koordinazioko Euskal Kontseiluak zenbait dekretu zirriborroak aztertzen ari dira.
- ~ Kontseiluak ikerketa pilotua abian jartzen du EHU-ko lau titulazioek dituzten eskumenen gaineko gizarte eskaerak aztertzeko.



41 zk. 2007ko uztaila

- ~ UPV/EHU-ko 2003-ko promozioaren enplegu-tasa %87 ingurukoa da eta EAE-ko langabeziatasa, %10 baino gutxiagokoa.
- ~ Gizarte kontseiluaren Osoko Bilkurak UPV/EHU-aren 37 berezko tituluren matrikula-prezioak onartu ditu.



42 zk. 2007ko azaroa

- ~ Gizarte Kontseiluak ideia-lehiaketa bat iragartzen du EKU-ko ikasle, graduatu eta langileen gizarte sare bat osatzeko.
- ~ 2007ko Plan Eragilearen Proiektuak ebazpen fasean sartzen dira.
- ~ Kontseiluko Osoko Bilkurak Bilboko Magisteritza Eskola jaregitea onartzen du.



43 zk. 2007ko abendua

- ~ Bukatu dira jadanik UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren 2007ko plan eragileko hiru proiektu.
- ~ UPV/EHU-ri hurbiltzeko urtekari eraginkor eta efikaza.
- ~ Ikerketa produktu eta zerbitzuen katalogo osoena UPV/EHUn zerbitzura.
- ~ Unibertsitatetik ateratako ikasleen gaitasunen inguruko giza eskakizunak identifikatu tituluen edukiak haiei egokitzeko.

57



44 zk. 2008ko otsaila

- ~ Gizarte Kontseiluak EHUKo aurrekontua onartzen du 2008rako, eta 437,1 milioi eurotakoa da, iazkoa baino %17,09 gehiago.
- ~ Gizarte Kontseiluak ekitaldi honetarako duen aurrekontuaren 478.000 euro 2008ko Plan Eragilarentzako dira.



45 zk. 2008ko martxoa

- ~ Gizarte Kontseiluak UPV/EHU-aren gizarre sarea sorrzeko ideien lehiaketaren sariak eman ziruen.
- ~ Gizarte Kontseiluak hazten eta gizarrearen beharrei egokitzen daon
- ~ UPV/EHU-aren berezko tituluen eskaintza aztertu du.
- ~ Osoko Bilkurak 2009-2010 Plan Estrategikoaren proiektuak aztertu zituen.



46 zk. 2008ko apirila

- ~ UPV/EHU-ko Gizarte Kontseiluak 2008 eta 2009 bitartean 12 proiektu berri garatzea onartu du.
- ~ Hezkuntza Sailak Unibertsitatearen 2007-2010 II Plana aurkeztu dio bilkurari.
- ~ EHU/UPV-ko Gizarte Kontseiluak irakaslegoari esleitu beharreko ordainketa-osakin gehigarriak onartu ditu.



47 zk. 2008ko ekaina

- ~ Gizarte kontseiluaren web orri berria tresna baliagarri bat parte hartzeko UPV/EHU eta gizartearen zerbitzura.
- ~ Gizarte kontseiluak bi egitasmo berriri ekin dio UPV/EHurentzat.

59



48 zk. 2008ko urria

- ~ EHUaren Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkurak ordainsari osagarriak eskatzeko bigarren deialdia onartu du.
- ~ EHU-ko 2004ko promozioaren enplegu-tasak gora egin du % 89,8 arte. Langabezikoak, aldiz, % 6,9 arte egin du behera.
- ~ Gizarte Kontseiluak beste hiru proiektu garatuko ditu EHUarentzat.



49 zk. 2009ko urtarila

- ~ UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkura aztertzen ari da I. Deialdiko osagarrien esleipenaren aurka jarritako errekurtsoen egoera.
- ~ II Deialdia Ehaoean.
- ~ Gobernua eta Autonomia Erkidegoak Zientzia eta Teknologiari buruzko lege berriaren zirriborroa aztertzen ari dira.
- ~ Euskadi, I+G+B esparruan eskuduntzak dituen lehenengo erkidegoa.



50 zk. 2009ko otsaila

- ~ Gizarte kontseiluak ontzat eman du berrikuntza eta ekintzailtza gaitasuna UPV/EHUko ikasleengan garatzeko plan bat.
- ~ Presidente berriak gizarte kontseiluko batzordetan.
- ~ Berrikuntza eta ekintzailtza gaitasuna UPV/EHUko ikasleengan garatzeko planean aurreikusitako jarduerak zabaltzea.



51 zk. 2009ko martxo

- ~ Gizarte kontseiluak kontuak emateko adierazleen sistema bat definitu du UPV/EHU-ren gizarte helburuak noraino lortu diren neurtzeko.

61



52 zk. 2009ko maiatza

- ~ Gizarte Kontseiluak ontzat eman du UPV/EHUko 2009. urterako aurrekontua.
- ~ Euskal Herri Administrazioetako Prestakuntza, Ikerketa eta Zerbitzuei buruzko Azterlana aztertu da, Unibertsitateari dagokionez



53 zk. 2009ko urria

- ~ Gizarte Kontseiluak UPV/EHuren kudeaketaren eta bere jardueraren jakinarazpenaren deszentralizazioa aztertuko ditu.
- ~ Bilkurak UPV/EHU-k Bizkaia S.A. Teknologia-Parkean parte hartzea onartu du.
- ~ Urtean titulaturako pertsonen lan-munduratzeari egonkor mantentzen da nahiz eta krisialdian izan.
- ~ «Gizarte Kontseiluak enplegurako sarbidea indartu nahi du unibertsitatearen eremutik».



54 zk. 2009ko abendua

- ~ UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak ordainsari osagarrietarak osarbidea izateko III deialdia onartu du.
- ~ Bekek Familia gehiagori ekarriko diete onura.
- ~ Ikasle ohiek aurkeztutako proiektu batek jaso du.
- ~ Gizarte Kontseiluaren Ideia Lehiaketako Saria.

EHU-REN GIZARTE-KONTSEILUAREN WEB GUNE BERRIA

2007an, Kontseiluak bere web gunea erabat berritu zuen eta aldaketa garrantzitsuak sartu zituen maila guztietan, barne-informazioaren (Intranet) eta tresna informatiko berrien erabileran oinarritutako dokumentazioaren (artxiboa) kudeaketa berria barne.



Berrikuntza nagusiak

- ~ Web gunea Unibertsitatearen web guneko azpihelbide bateko orrialde bat izatetik, askoz planteamendu eskuragarriagora igaro da, berezko helbidearekin: www.gizartekontseilua.com
- ~ Teknologiari dagokionez, web guneak Kontseiluari buruzko berrien eta berrikuntzen blog formatua du, alderantzizko ordena kronologikoan eta kategoriara.
- ~ Edukiak etengabe eguneratzen dira euskaraz eta gaztelaniaz.
- ~ Interesa duten erabiltzaileak, posta elektroniko edo RSS bidez harpidetu daitezke.
- ~ Web gunea irekiago dago erabiltzaileek parte har dezaten; izan ere, erabiltzaileek aipamen edo galderak egin ditzakete eta dagokion erantzuna jasotzen dute Gizarte Kontseiluaren aldetik.
- ~ Bilaketa-sistema bat du, web guneko edukiak hitzen bidez aurkitu ahal izateko, emaitzak Unibertsitate osoko web gunekoein nahastuta egon gabe.

Barne-informazioaren kudeaketa-Intranet

- ~ Web gune berriak Intranet edo sarbide-zona bat du, Kontseiluko kideek parte hartuko duten osoko bilkura guztietarako dokumentazioa eskuratu ahal izan dezaten.

Informazioaren eta dokumentazioaren kudeaketa-Artxiboa

- ~ Informazioaren eta dokumentazioaren kudeaketa-sistema berriarekin, aurrera egin da dokumentazioaren kontrol eta informazioaren tratamendu egokian, hori sortzen eta/edo jasotzen den unetik artxibatzen den arte, Kontseiluaren funts dokumentalen berrikuspena, katalogazioa, sailkapena eta garbiketa barne.

